



Urteko harpidedun kanpaina hasi du HITZAK, proiektua sendotzeko

GUTUNA ▶ Datorren astetik aurrera jasoko dute irakurleek kanpainari buruzko informazio gutuna

ETORKIZUNA ▶ 45 euro eskatzen dira; helburu berriei aurre egiteko ezinbestekoa da laguntza hori ▶ 2



Ubare eraberritzeko herritarren parte-hartzea eskatuz

ZIZURKIL ▶ Zizurkilgo Udalak prestatutako aurreproiektuaren arabera, Ubare auzoak aldaketa nabariak jasango ditu datozen urteotan. Eraberritze prozesu horretan auzokideen parte-hartzea

bultzatu nahi du Udalak. Besteak beste, bilera irekietara deitu ditu, proposamenak jaso eta lantzeko. Hain zuzen ere, asteartean izango da lehena, 19:00etan hasita, Kultur Etxean. I. GARCIA ▶ 4

TOLOSA ▶

Langabetuak
lan
munduan
txertatzen

ASCODEL eta
Tolosaldea Garatzen,
elkarlanean ▶ 3

ARESO ▶

Alustiza eta
Argi, Euskal
Herrikoan
lehan

«Lan ona egiten»
saiatuko dira Artzain
Zakur Txapelketan ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Bertako
produktuak
ezagutzera
ematen

Azoka bereziak,
bihar, Ibarran
eta Asteasun ▶ 6

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAKo egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatetxean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa



KOMUNIKABIDEAK ▶

Urteko harpidedun kanpaina hasi du HITZAK, proiektua sendotzea beharrezko delako

45 euroko laguntza eskatzen die harpidedunei; helburu berriei aurre egiteko ezinbestekoa du laguntza hori; eskualdeko komunikabide sarea osatu nahi du

I. ETXEBESTE - N. LATABURU

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK harpidedun kanpaina martxan jarriko du datozen egunotan, urtero legez. Hori dela eta, egunero egunkaria etxean jasotzen dutenek kobraketa kanpainaren berri ematen duen gutuna jasoko dute aste honetatik aurrera. Bertan proiektuaren xedeak eta herritarren laguntzaren garrantzia azalduko zaie. 45 euroko diru laguntza eskatzen da 2005 urterako. Orain arte, goizero eskualdeko 30 herrietako 5.000 harpidedunei iristen zaie euskarazko egunkaria etxeraino, eta askoz ere gehiago dira egunero-egunero HITZA irakurtzen dutenak.

Ordainketa egiteko aukera ezberdinak eskaintzen ditu HITZAK: eskura egin ahal izango da egoitzara hurbilduz —Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa—, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Hil honen 30etik aurrera etor daitezke ordainketa egitera. Ordainketa egiteko beste aukera Euskadiko Kutzako 3030 0026 22 0260058564 kontu korrontean 45 euro sartzea da. Horretarako, faktura bat igorriko zaie harpidedunei postaz, eta bertan ordainketa egitean erabili beharko duten kontzeptua azalduko zaie (HITZAK ordainketa harpidedunarekin identifikatu ahal izan dezan). Dena dela, kobraketa prozesua errazteko, HITZARENTZAT hobe da zuen kontu korrante zenbakia ematea, 943 30 43 46 bezero arreta zenbakian, astelehe-



Datorren astetik aurrera hasiko du HITZAK urteko kobraketa kanpaina. NOELIA LATABURU

netik ostiralera, 08:30etik 20:30era edo harpidetzak@hitza.info helbidean. Ordainketa modu hau aukeratzeko dutez, ezezkorik ezean, urriaren 7an kobratuko zaie.

Proiektua sendotzen

Lau urte eta gero proiektua sendotu da eta informazio aldetik eskualdean erreferentzia bilakatu da Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA egunkaria. Baina bere asmoak ez dira egunkaria argitaratu eta web orrialdea hobetzera mugatzen. Aurrera begira helburu handi-

nahiagoak ere baditu; eskualdeko komunikabide sarea osatu joateko xedea du. Zentzu honetan, eskualdeko telebista katea izateko lanean hasiko da HITZA. Komunikabideek zerean handia dute euskararen normalizazioan, eta euskaraz irakurri, informatu eta bizi gaitzen lan egiteko konpromiso argia du HITZAK.

Abendurako Eusko Jaurlaritzak 15 telebista kontzesio emango ditu, eta hori lortzeko bidean ari da lanean HITZA. Hain zuzen ere, horretarako eskatzen du harpidedunen laguntza. Ehunka eta ehunka

harpidedunek ematen dute dagoeneko diru laguntza urteroro, baina gehiagoren laguntza behar da HITZAREN helburuak errealtate bihurtzeko. Autofinantzaketan gora egin behar du proiektuak, beti ez dadin erakunde publikoen pean egon. Laguntza emateagatik abantailak izaten dituzte harpidedun ordaintzaileek, hala nola, eskualdeko merkatartzan beherapenak, antolatutako zozketetan parte hartzeko aukera, promozio sariak... Zuen laguntzari esker beteko ditu HITZAK beste hainbeste urte.

DATUAK ▶

Eskualdeko euskarazko egunkariak urteko harpidetza kanpainari ekingo dio datozen egunotan. Hona hemen horren inguruko hainbat datu:

Eskatutako kopurua. 45 euro.

Lehendik laguntza eman dutenek. Ezezkorik ezean, urriaren 7an egingo zaie kobraketa, kontu korrontetik. **Lehendik laguntza eman ez dutenek.** Bezero Arretan kontu korrontean zenbakia emanez edo kopurua Euskadiko Kutzako kontu honetan sartuz egin daiteke: 3035 0026 22 0260058564. **Bezero arreta.** 943 30 43 46 telefono zenbakian (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 20:30era) eta harpidetza@hitza.info helbidean.

Eskura ordaintzeko. HITZAKO egoitzan (Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa) irailaren 30etik aurrera egin daiteke harpidetza, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

HARPIDEDUNAK

Orain arte goizero eskualdeko 30 herrietako 5.000 harpidedunei iristen zaie HITZA etxeraino

KOBRAKETA

Hiru bide daude ordainketa egiteko; aste honetatik aurrera hasiko gara postaz informazioa bidaltzen

TELEBISTA

Eskualdeko sarea osatuz joateko xedea du HITZAK; telebista katea lortzeko lanean ari da honezkerok

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

EKONOMIA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Tolosaldea Garatzen SA agentziak eta Iraupen Luzeko Langabezia Zuzentzeko Elkarrekin (ASCODEL) hitzarmena sinatu dute berriki. Eusko Jaurlaritzaren enplegu politikaren esparruan kokatzen den Lanbide zerbitzuaren bitartez Tolosaldea Garatzen SAK udalen ize-nean eskaintzen dituen enplegu zerbitzu publikoak koordinatzea eta osatzea da hitzarmenaren xedea, ASCODELek «40 urte baino gehiagoko iraupen luzeko langabetuak diren bere kideei eskaintzen dizkietekin».

Tolosaldea Garatzen-eko lehendakari Jokin Bildarratzek eta ASCODELeko Euskadiko idazkari orokor Miguel Angel Gonzalezek sinatu zuten asteazkenean lankidetzaren hitzarmena, eta, hala, Tolosaldea Garatzen SA garapen agentziak 11.000 euroko diru laguntza emango du «Tolosaldeko 40 urtetik gorako iraupen luzeko langabetuak lan munduan txertatzeko eskaintzak hartzeko». Horretarako, ASCODELek bere baliabideak eta lan munduan txertatzeko lanetan diharduten langileak erabiliko ditu. Gainera, lan eskaintzak bereganatuko ditu, baina 45 urtetik gorako guztien aukera berdintasuna babesteko, enpresa eskatzaileak zehaztutako ezaugarriak izango dituzten eskaintzak Tolosaldea Garatzen SAREN Lanbide zerbitzuen bidez kudeatuko dira.

Bi erakundeek diotenez, ASCODEL-en eta bere kideen interesak zaintzeko, beraiek proposatutako hautagaiek izango dute lehentasuna kudeatutako lan eskaintzetan, lehenetsitako hautagai moduan. «Eskaintzaren baldintzei egokitzan zaien hautagairik ez balego, gainontzeko enplegu eskatzaileek hartuko lukete parte hautaketa prozesuan».

Aipatutako jarduketaren Jarraipen Batzorde bat izendatuko da. Bi entitateek ordezkaritza bana izango dute batzorde horretan, eta hiru hilean behin bilduko dira, «hobetu edo aldatu beharko lirakeen ekintzei edo gainerako egoerei buruzko ideia zuzentzaileak aztertzeko edo proposatzeko egokitzat jotzen badira». Urtebeteko iraupena du lankidetzaren hitzarmen horrek sinatutako datatik zenbatzen hasita, baina luzatzeko aukera ere badagoela jakinarazi dute bi aldeek.

«Tolosaldea Garatzen SA Lanbide erakundearen laguntzaileenez, ondorengo helburuak ditu, besteak beste: eskualdeko enplegua bultzatzea, orientazio, lanbide-prestakuntzaren hobekuntza eta lanpos-



ASCODELeko Euskadiko idazkari orokor Miguel Angel Gonzalez eta Tolosaldea Garatzen-eko lehendakari Jokin Bildarratz, asteazkenean, lankidetzaren hitzarmena sinatzen; urtebeteko iraupena izango du. HITZA

Tolosaldea Garatzen, enplegua bultzatuz

Lankidetzaren hitzarmena sinatu du ASCODELekin, «iraupen luzeko langabetuak lan munduan txertatzen laguntzeko»

tuak sortzen dituzten enpresen bitartekotza bidez herritarrei ahalik eta ongizate handiena ematea», adierazi du Jokin Bildarratzek. Zehatzago esanda, langabeziaren eraginez zenbait giza talde «gizarte bazterkaitzarekin zigortuta» daudela, eta Tolosaldea Garatzen-ek egoera horri aurre egiteko ekintzak gauzatzea helburu duela dio. Bere aburuz, giza talde horiek, bereziki, «gazteek, langabeziaren dauden emakumeek, iraupen handiko langabeziaren dauden pertsonen eta 40 urtetik gorako pertsonen» osatzen dituzte.

«Hori guztia konpontzeko, garapen agentziak lankidetzaren hitzarmenak egiten ditu hainbat entitateekin trebakuntza, orientazioa eta laneko txertaketa helburuak bete eta gizartean zein lan munduan barnerratzeko zailtasunak dituzten giza taldeei ahalik eta zerbitzurik onena emate aldera». Horren adibide da ASCODELekin egindakoa.

ASCODEL, Iraupen Luzeko Langabezia Zuzentzeko Elkarrekin, bestalde, irabazi asmorik gabeko elkarrekin da, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin Erregimengoa izena emanda dago.

Bere helburuen artean dira elkarteko kide guztiak lan munduan eta mundu profesionalen txertatzea, adibidez. Horretarako, «behar diren ekintza guztiak sustatu eta gauzatzen» dituzte, txertaketa hori eragotzi edo oztopatzen dituzten trabak kenduz.

Horrez gain, «elkarteko partaide diren pertsonen lan biziaren enplegu gabeziaren eta horretatik eratorritako Gizarte Segurantzako kotizazio gabeziaren eraginez galdutako ekonomia eta gizarte eskubideak

berreskuratzea» ere badu ASCODELek xede.

«Baldintza soziologiko gisa iraupen handiko langabetu izendapena duten gizonak eta emakumeak, eta, batik bat, 45 urtetik gorakoak lan munduan txertatzeko egiten dugu lan, eurak lan munduan barnerratzeari unean uneko konponbide gisa hartuta. Hortik eratorrita Gizarte Segurantzako erregimenetako batean kotizatuak lukete etorkizun hurbilean eszaldura izan dezaten Gizarte Segurantzari ordaindutakoaren arabera prestazio sistemak», azaldu du Gonzalezek.

DIRU LAGUNTZA

Tolosaldea Garatzen-ek 11.000 euro emango ditu 40 urtetik gorako iraupen luzeko langabetuei laguntzeko

BATZORDEA

Jarraipen Batzorde bat izendatuko dute, eta bi entitateek ordezkaritza bana izango dute hiru hilean behin bildzeko

KULTURA ▶

Txapelketa ugari gaur, La Jararen Kultur Astean

La Jara elkarrekin antolatutako Kultur Astea aurrera doa, eta gaur txapelketa ezberdinak egingo dituzte. 16:00etatik aurrera uzta eta mus txapelketak izango dira Extremadurako elkarrekin egotzian, eta ordubeteko berandua, berriz, txintxon eta tute txapelketak egingo dituzte. Bestalde, elkarteko bi kideek, Garbiñe Biurrunek eta Maria Jesus Mendizabalek egindako margolanak ikusgai dira egotzian bertan.

GIZARTEA ▶

Ekitaldi ugari gaur Garagardo Azokaren harira

Askotariko ekitaldiak izango dira gaur, Garagardo Azokaren harira, herrian. Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta, pedalarren festa egingo dute 17:00etan 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. San Frantzisko pasealekutik irten, eta ibilbidea egingo dute Foruen etorbideraino. Lopez Mendizabal kalean, ondoren, pailazoak izango dituzte. Ilunabarrean, Vista Alegre txaranga Tolosako kaleetan zehar eta Zerkausiaren inguruan ariko da giroa alaitzen, eta 23:00etan Jum-Jum taldeak kontzertua eskainiko du Andra Mari plazan.

KIROLA ▶

Carlos Peñarekin igerian aritzeko aukera irekia

Carlos Peña igerilari tolosarra Guinness errekorra herrian jarri nahi du bere hurrengo egitasmoan, 24 orduz jarraian igerian sorbaldez egingez. Usabal kirol eta aisialdi gunearen inaugurazio ekitaldian irekiko duten igerilekuan egingo du saiakera, hilaren 24tik 25era. Gaiantzeko zazpi kaleetan beti izango du norbait laguntzaile, bere ahaleginak jendez inguratutako egitasmoa izan nahi duelako. Ikastetxeen, elkarrekin, igeriketa taldeetako kideen eta norbanakoen laguntza lortu nahi dute sustatzaileek. Horretarako izena eman behar da, Kultur Etxean, www.tolosaa750.net/asmook_guinness.php helbide elektronikoan edo 943 67 03 83 telefonoan.

IRURA ▶

Parrokiaren
eraberritzeari
buruzko bilera

Biharko 10:30eko mezaren ondoren San Miguel parrokiaren eraberritze egitasmoaren berri emango dute. Proiektuaren «garrantzia» dela eta, eragileek bilerara azaltzeko deia egin dute.

VILLABONA ▶

3822 zenbakia
da Oinkariren
zozketan sariduna

Oinkari dantza taldeak Lekeitioko bainuetxean asteburu bat zozketatu berri du 21. lagunentzat. Zenbaki sariduna 3822 izan da.

ANOETA ▶

Bazkide ohiari
meza eskainiko
dio Alkartasunak

Ignacio Aranzabal bazkide ohiari meza eskainiko dio Alkartasuna jubilatuen elkar-teak. Bihar 12:30etan izango da elizkizuna parrokian.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Parte hartzeko aukera

Ubareko eraberritzearen inguruan herritarrek parte hartzea nahi du Udalak

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak prestatu duen aurreproiektuaren araberako, datozen urteetan eraldaketa garrantzitsua jasango du Ubare auzoak. Esate baterako, aldaketan artean daude ondorengoak: RENFEko geltokiaren alboan bide berria eraikiko dute, auzorako sarrera-irteera zein barne zirkulazioa egituratuko dituen; Oria ibaiaren ertzean oinezko bide zabala sortuko dute, egun bertan dagoen errepidea ordezkatuz; Ubaren oinezkoentzako guneak ugartuko dira eta auzo barruko espazioak berrantolatuko dituzte—aparkaleku, plaza, parke eta abarri dagokienez—.

Aurre-proiektua landuta badago ere, 3-4 bat urte iraungo duten lanei hasiera eman aurretik, aurre-proiektu hori leundu, osatu eta zehatztea ezinbestekoa ikusten du Udalak. Horrela, Ubarekin harremana duten biztanleentzat, bertan bizi edo lan egiten dutentzat, lan bilerak prestatu di-



Ubare auzoko irudia, trenbidearen ondoko parkea ikusten dela. i.e.

tuzte. Bilerak irekiak izango dira, eta proiektua ezagutu nahi duten auzolagunak zein Ubareren hobekuntza ekarriko duten ekintzen zehaztapenean parte hartu nahi duten guztiak gonbidatzen ditu Udalak. Lehenengo bilera astearte honetan izango da, Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Beste bi bilerak hilaren 27an eta urriaren 4an egingo dira, toki eta ordu berean.

Lan-bilera edo elkarlan tailetan erdietsi nahi diren hel-

buruak zehaztuak daude. Alde batetik, Ubareren eraberritzea suposatuko duen proiektu teknikoaren aurkezpena burutzea, beraz baldintzatu duten elementuak zehaztuz—Oria ibaiaren bideratzea, errepide berri baten beharra...—, aurreikusten diren lanen behin behineko egutegia azalduz, auzoaren trafikoan zein egunero kotasunean izango dituen eragin berri emanez... Bestalde, ahal den neurrian, proiektuak auzokideengan sor ditzaken

kezka, zalantza, eragin, eta bestelakoak lantzea eta bideratzea. Gainera, proiektu tekniko zehazteko beharrezkoak diren hainbat gai—ekipamenduen kokapena, hiri-altzariei dagozkien beharrak eta eskakarak, besteak beste— auzokideekin lantzea.

Beste helburu batzuk ere landu nahi ditu Udalak. Esaterako, eraberritze planaz gain, Zizurkilgo auzo bezala dituzten beharrak, gabeziak, potentzialtasunak, proposamenak... jasotzea, arau subsidiarioen berrikusketan zein etorkizunerako udal plangintza eta eguneroko jardunean kontuan hartu eta barneratuak izan daitezten. Horrez gain, Udala eta Ubaren bizi eta lan egiten duten auzokideen arteko elkar-gune bat erraztea, etorkizunera begira bien arteko lotura zein harremanak estutu eta sakontzeko oinarriak ezarriz. Bide batez, auzo mailako partehartzea bultzatu eta sustatu nahi dute, Ubarek herri mailan paper aktiboa joka dezan.

IRURA ▶ EUSKARA

Udalak eta HITZAK hitzarmena berri
dute, «euskararen alde» lanean jarraitzeko

Biztanleko hiru euroko diru laguntza emango dio Udalak egunkariari

I. GARCIA

Marimi Ugalde Irurako alkateak eta Enekoitz Esnaola Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN enpresa argitaratzaile Tolosa Herria Hedabideak-eko lehendakariak hitzarmena berri dute. Irurako udaletxean egin zuten atzo sinaketa ekitaldia. Hitzarmenak zehazten duenez, biztanleko hiru euroko diru laguntza emango dio Udalak HITZARI, 2005eko epeari dagokionez.

Ugaldek esan zuenez, «euskararen alde hasieratik egin du Udal honek. Eguneroko sortu zenean ere gure laguntza eman genuen eta orain HITZAREkin ere berdin jarraitzen dugu». Tolosaldeko eta Leitzaldeko egunkariak gertuko informazioa ematea eta euskaraz izatea nabarmendu zuen: «Herri-tarrek inguruan gertatzen



Enekoitz Esnaola eta Marimi Ugalde, atzo, hitzarmena sinatzen. i.e.

dena jakin nahi izaten dute eta HITZAK lan hori betetzen du. Eta, horrela, jendeari egunero euskaraz zerbaite irakurtzeko aukera baliatzen zaio». Esnaolak eskerrak eman zituen diru laguntzarengatik eta hitzarmen hau sinatzea «oso garrantzitsua» dela esan zuen. Gaineratu zuenez, HITZA bezalako proiektu batek «erakunde publikoen inplikazioa» behar du

«euskarak aurrera egin dezan, komunikabideen bidez euskararen normalizazioaren bidean pausoak eman ditzagun».

Irurako Udalez gain, HITZAK hitzarmenak sinatu ditu Tolosaldeko eta Villabonako udalekin, eta Ibarako Udalarekin akordioa gauzatzeko bidean da. Eskualdeko beste udalekin ere harremanetan dihardu hitzarmenak sinatzeko.

 TOLOSALDEA GOMARAKO I. N. INHURITUA 	
ETENGABEKO FORMAKUNTZA 05-06(Langileentzat)	
KATALOGO MODULARRA (EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIEN SISTEMA)	
DOHAINIK = %100 LAGUNTZA (Urriatik aurrera emango dira)	
INFORMATIKA	
<input checked="" type="checkbox"/> Datu-Basak administratzea (Access-hastapena eta aurreratua)	80 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Lengoaian egituratuak oinarriko mailako programazio aldaketa (Visual basic)	70 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa (Windows-word-excel-correo-internet)	75 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Informatika aplikazioak (Word-excel aurreratua)	80 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Sare lokal bat administratzea (Windows 2000 Server)	70 or.
FABRIKAZIO MEKANIKOA	
<input checked="" type="checkbox"/> Planoen interpretazioa	50 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Fabrikazio-prozesuak	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Torno konbentzionalen mekanizazioa	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Fresatzeko makina konbentzionalen mekanizazioa	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC fresatzeko makinaren programazioa (Heindelheini)	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Artezko makina zilindrikoko mekanizazioa	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CAD 2D (Autocad)	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC fresatzeko makina (CAM Abiadura handiko mekanizazioa-Unigraphics)	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CAD 3D Modelatza eta planuak (Abiadura handiko mekanizazioa-Unigraphics)	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC tornuaren programazioa	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CNC hari bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30 or.
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	
<input checked="" type="checkbox"/> Galdaragintza eta egituren planoak interpretatzea	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Beste posizio batzuetako MIG/MAG soldadura	50 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Posizio horizontaleko TIG soldadura	50 or.
<input checked="" type="checkbox"/> CAD Metal-erakuntzen inbilitapena (Solid Edge)	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Galdaragintza eta marrazketako gurepenak (Lantze)	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA (Langaburuentzat ikastaroa)	530 or.
ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA	
<input checked="" type="checkbox"/> Etxebizitzetako instalazio elektrikoak	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Automatismo elektroteknikoak	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Automatismo programatu aurreratua (PLC-OMRON)	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> PLC-en programazioa	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Manejagailuak	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Roboien programazioa	20 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Motor elektrikoaren abiadura-erregulazioa (Bariadoreak)	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Fabrikazio mailako sistemen eta CIM	10 or.
ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA	
<input checked="" type="checkbox"/> Berokuntza-instalazioak muntatzea	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Aire girtoko instalazioak muntatzea	40 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Teknologia pneumatikoko sistema automatikoak	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Teknologia hidraulikoko sistema automatikoak	30 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Erregulazio automatikoko elementuak	20 or.
KALITATEA – HARREMANAK- BESTE BATZUK	
<input checked="" type="checkbox"/> Lan giroko harremanak (Enkargatua)	60 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Kalidatza	65 or.
<input checked="" type="checkbox"/> Organigrama y control de trabajo	10 or.
Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47- Santa Iuzia, 17 – 20400 TOLOSA E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com Web: www.tolosaldea.com	

SEGA ▶

Eskualdekoak, bihar, Euskal Herriko Sega Txapelketako finalean

Errezilgo barrutian jokatu dute Erasunek, Aranaldek, 'Urki'-k eta Mitxelenak lehortearen erruz atzeraturiko lehia



Urki orendaindarra iazko txapelketan; bihar ere txapela lortzen saiatuko da. JON URBE/ARGAZKI PRESS

ALEGIA ▶

Kalebeheran bigarren festa eguna izango da gaur

Kirol ekintzak izango dira nagusi egunean zehar; bihar, herriko dantzarien emanaldia

J. GOIKOETXEA

Kalebeherako jaien barruan, bigarren eguna ospatuko dute gaur. Atzo, festen hasierarekin batera, giro bikaina izan zen. Patata tortila lehiaketaren ondoren, zahagiardoan afaldu zuten askok eta askok. Gauari amaiera emateko, Eugenio eta Aitziberren doinuekin gorputza dantzan jarri zuen batek baino gehiagok. Gaurkoari begira, askotariko ekintzak izango dira.

Dantzarien emanaldia

Jaien barruan, herriko dantzarien emanaldia izango da bihar eguerdian. Txakolin dastaketaren aurretik, urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute dantzariak. Gazteak izanagatik, maila handia dute, eta hori dela-eta emanaldia ikustera gonbidatu nahi dituzte herritarrak. Beraz, aukera ederra izango da bihar txakolin on bat dantza saio hobe bat ikusiz hartzeko.

EGITARUA ▶

GAUR, LARUNBATA

12:30. Krosa.

16:00. Ume jolasak.

17:30. Pala txapelketa.

21:00. Zahagiardoa.

Ondoren. Bertsolariak: Ibai

Esoain, Xabier Sukia, Iker

Zubeldia eta Iker Iriarte.

Gauean zehar. Txirrisklas

festa Irma eta Amets

trikitilariak alaiturik.

Atsedendian txinga proba.

ERREAKZIOAK ▶

MIKEL ARANALDE
GAZTELU

«Finala atzeratzeak lauoi eragin digu»



«Nahiko justu iritsi naiz finalera. Prestakuntza abuztuari begira egin genuen, eta atzerapenak goitik behera aldatu zuen prestakuntza. Gauzak horrela, Erasun eta Mitxelenak ikusten ditut faborito nagusi biharko. Bestalde, Urki ere ezin dugu ahaztu, gogo askorekin baitago. Bi faborito nagusitakoren batek huts egingo balu, orendaindarrek aukera dezente izango dituzte txapela bereganatzeko».

J. M. ERASUN
ZIZURKIL

«Belar faltak asko zaildu du prestaketa»



«Prestaketa oso luze joan da. Jada badaramatzat bi hilabete goi mailan lehiatzen, eta hor egoteak prestakuntza handia eskatzen du. Belar ezak buruhauste ugari sortu dizkigu entrenatzerako orduan, eta hilabete bateko atzerapenak desoreka eragin digu denoi. Igandeari begira, Mitxelenak ikusten ditut faborito, baina Urki ere sasoiari dagoela dirudi, eta arretaz zaintzeko moduko arerioa izango da».

'URKI'
ORENDAIN

«Denboradia izugarri ari da luzatzen»



«Belarraren egoerak asko baldintzatu du entrenamenduarekin jarduna. Arazo handiak izan ditugu belar egokia bilatzeko, eta urrutira joan behar izan dugu. Bestalde, denboraldia ere oso goiz hasi genuen, eta oso luzea ari da izaten. Biharkoari begira, Erasun eta Mitxelenak ikusten ditut faborito nagusi. Une honetan Aranalde eta ni baino gehiago direla uste dut, eta bien artean egongo da txapelak».

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Inkesta. Mugikortasun Astearen baitan, ekitaldi ugari egingo dituzte egunotan eskualdean; hilaren 22a Autorik Gabeko Eguna izango da. Nola joaten zara lanera? Autoz, oinez, bizikletaz, autobusez, motorrean... Sartu gure web orrian eta eman botoa.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.

Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibilokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan. 42.000.000 pta

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian

Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan. Guztin bertua. 244.000 euro

Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskon. 126m2. Garajearekin.

Salgai (Tolosalde). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Badiller Zalkibia kalean...

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea P. de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zalkibia kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSALDEKO

SALTxitxa

Etor zaitez!
Tolosako saltxitxa onenak probatzera bai Garagardo Festan eta urte guztian

IBARRA ▶ KULTURA

Bertako produktuak ikusgai bihar goizean

Artelanak, barazkiak, garai bateko lanabesak, abereak... ikusi ahal izango dira 'Bertakoa ezagutzekoa!' azokan

INIGO TERRADILLOS

Bihar egingo da Ibarako Euskal Herria kalean *Bertakoa ezagutzekoa!* azoka. Hauspoak urtean zehar antolatzen dituen jardueren artean dago aurten goan VI. edizioa betetzen duen azoka, eta Ibaran tradizionalki oinarritutako izan diren eta oraindik ere oso garrantzitsuak diren lanbideak —nekezarritza, abeltzantza eta artisautza batez ere— eta hauekin erlazionaturako beste hainbat jarduera eta ohitura ezaguturazi eta bultzatzea du helburu.

Euskal Herria kalean, besteak beste, artelanak, barazkiak, garai bateko lanabesak eta loreak ikusi ahal izango dira 50 postutan banatuak. Abereak, berriz, Beko-bide plazan egongo dira, eta aurtengoan Ibarako hamabi baserrietan hezi eta zaintzen diren behiak, txekorrak, bigak, behorrak eta zaldiak, astoak, ardiak eta ahun-



laz egindako *Bertakoa ezagutzekoa!* azokako une bat. INIGO TERRADILLOS

tzak, poniak... ikusi ahal izango dira.

Bestalde, Tolosaldeko VIII. Ezti Txapelketa egingo da azokan goizean zehar, eta eztizaleen postura inguratzen diren pertsonak ezti probatzeko aukera izango dute. Era berean, erleen argizariak kandelak egiteko prozesua izango da ikusgai guzti horretan.

Aurtengoan musika eta dantzari arreta berezia eskaini nahi izan zaio. Hori dela eta, goizean zehar herriko trikitilariak alaituko dute azoka gunea, eta haiekin batera Ezpeletako Ezpela dantza taldeak Lapurdiko dantza ezberdinen erakustaldia eskainiko du Euskal Herria kalean, 12.00etatik aurrera.

Herriaren nortasuna indartzeko

Hauspoa Kultur Elkarteak 1998. urtean sortu zen. Herriko elkarte, talde, nahiz norbanakoez osatua dago, eta urtean zehar ekimen ugari bultzatzen ditu Ibarako herriak duen nortasuna eta izaera indartu, ezagutarazi eta herri sena sustatzeko ahaleginean. Beste helburuen artean, euskararen erabilera indartu, auzolana sustatu, aisialdi dagokion jorratu eta elkarte ezberdinen batasuna lortzearena leudeke. Izenari dagokionean, Hauspoak itzaltzearen dagoen suari (herriari) indarra emateak egiten dio erreferentzia. ◀

Ez da, ordea, guztia ikusteko izango; bertara hurbiltzen den orok jatekoa eta edatekoa ere izango du, taloa eta sagardoa egongo baitira.

Hau guztia bihar goizean, 10:00etatik 14:00etara, gauzatu da Euskal Herria kalean eta Beko-Biden. Hauspoa Kultur Elkarteak Ibaran antolatzen den azoka berezi honetara etortzeko gonbita luzatu nahi die herritar guztiei.

IBARRA ▶

IV. Ibarra Herria Xake Txapelketa bihar

10:00etan hasiko da Euskal Herria kalean; hamar talde gonbidatu dituzte

I. TERRADILLOS

Bihar IV. Ibarra Herria Xake Txapelketa jokatu da Euskal Herria kalean, 10:00etatik aurrera, Ibarako Xake Elkarteak antolatuta, eta Ibarako Udala babesle duela.

Taldeakako partida azkarrrak jokatu dira; hau da, lau lagunek osatutako taldeak liga sistema jarraituz elkarren aurka ariko dira, eta jokalaririk bakoitzak bost minutu izango ditu partida amaitzeko. Hamar talde gonbidatu dituzte: Beasaingo Alfil, Azkoitiako Anaitasuna-Kakute, Añorgako Kirol Elkarteak, Eibar Kirol Elkarteak, Errenteriko Fomento-Beraun, Donostiako Fortuna, Ibarako Xake Elkarteak, Arrasateko San Andres, Tolosaldeko Xake Elkarteak eta Zornotzako Xake Elkarteak.

Amaieran sariak banatu dituzte txapelketako lehenengo hiru sailkatuentzat, txapelketako jokalaririk onenarentzat eta txapelketako jubenetan onenarentzat.

LIZARTZA ▶

Kaxianoren omenezko astea hilaren 20etik 25era

I. TERRADILLOS

Asteartetik igandera bitarte, hau da, hilaren 20tik 25era, Kaxianoren omenezko astea antolatu dute Lizartzan.

Horrela, asteartean eta osteguneko hitzaldiak izango dira, larunbatean jaialdia herriartean parte-hartzearekin eta igandean, besteak beste, herri bazkaria bertsolari eta trikitilariekin. Txartelak Tolosaldeko Agustinenean, K2-n eta 66-n, Orexako Kontsun eta Lizartzak tabernetan, ilea-paindegian eta supermerkatuan eskuratu ahaliko dira hilaren 20a baino lehen.

IBARRA ▶

Gimnastika erritmikoko ikasturte berria abian

ERREDAKZIOA

Ibarako Belabieta gimnastika erritmikoko eskolak ikasturte berria hasiko du urrian, Saioa Sorondo eta Laura Cuadrado irakasle titulu duenekin.

Eskolan izena eman nahi duenak Belabieta kiroldegira deitu dezake dagoeneko, 943 67 15 44 telefono zenbakira; edo, bestela, baita 629 11 20 61, 943 11 70 23 edo 943 01 94 22 telefono zenbakietara ere.

ASTEASU ▶ KULTURA

Artisauak, elikagaiak eta abereak ikusgai, bihar, IX. Azoka egunean

10:00etan hasita eta 20:00ak bitarte egongo da zabalik azoka

I. TERRADILLOS

Bihar izango da Asteasun aurtengo bere bederatzigarren urtea betetzen duen Azoka Eguna; beraz, urtero bezala, bertan izango dira artisauak, elikagaiak eta abereak.

Azoka egun guztian zehar izango da, goizean 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara, eta hiru gunetan banaturik egongo da: abereen gunea, artisauena eta elikagaiena.

Abereei dagokionean, Asteasuko baserrietakoak izango dira denak; 100 burutik gora abere egongo dira ikusgai pilotaleku ondoan dagoen zelaian, eta horien artean, behiak, esne behiak, ahuntzak, ardiak eta zaldiak. Abereak ikustearik batera horien inguruko informazioa ere izango dute haietaz gehiago jakiteko, hala nola, zein adin duten, nongoak diren, ematen badute zenbat esne ematen duten... jakin ahaliko da.

Abereak goizean ikusteko aukera izango da, baina pilotalekuan izango diren artisauen lanak eta elikagaiak egun osoan egongo dira eta horiek ikustez gain erosterik ere izango da. Pilotalekuan Asteasuko IX. Fruta eta Barazki Azoka egingo da, eta gazta, kontserbak lana-

besak, txerriak, gozokiak... bezalako Euskal Herriko hainbat produktu ere izango dira. Halaber, nekazaritza eta abeltzantza tresnak izango dira, eta barrika egileak, lanabesak, egur taila, bastoiak, esku lanak, kandelak, gakorratzak... bilduko dituen eskulangintza azoka ere izango da ikusgai. Kasu honetan, Asteasukoak eta kanpotik etorritako artisauen eta baserriarren produktuak izango dira hainbat postuetan jarriko dituztenak.

Asteasuko Udalak Tolosaldeko Udalaren laguntzarekin antolatutako Azoka Eguna herriko baserriarrei haien produktuak jendaurrean aurkezteko aukera emateko izaten du helburu. Horrela, kalitateko produktuak erakutsiko dituen festa berezia izango da biharkoa.

**ESNAOLA ETA URRUZOLA
MUSIKA ESKOLA**

SOLFEA-AKORDEOIA-PIANOA-TEKLADOA
GITARRA-TRIKITIXA-PANDEROA eta ARMONIA
AKORDEOI, TRIKITI eta TEKLATU taldeak

Foruen etorb, 9 - tartepianta • TOLOSA • Tel.: 943 65 13 82

ARESO ▶ GIZARTEA

Alustizak bihar du Euskal Herriko Txapelketako saioa

Berrizen jokatu da aurtengo edizioa, eta Argi bere artzain txakurrarekin «lan ona egiten» saiatuko da

JAIONE ASTIBIA

Bihar, igandea, Berrizen jokatu da Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa, eta hantxe izanen da Antonio Alustiza are-soarra ere, Argi-rekin.

Alustizak abuztuaren 28an Uharteko Arakilen jokatu zen Nafarroako Txapelketa irabazi zuen, ondorioz, Euskal Herrikoan nahiz Nazioartekoan ere parte hartzeko aukera lortuz,

berriz ere, iazko saioetan ere hantxe izan baitzen, gainera, Argi txakurrarekin berarekin.

«Lan ona egitea» du helburu aresoarrak, ardiekin txakun ibiliz eta txakurak bere aginduei obedituz. Oso maila handiko parte-hartzaileak ariko dira bihar lanean, Berrizko elizaren atze aldeko larrean, 11:00etatik aurrera burutuko den XXXIX. edizio honetan. Izan ere, Euskal Herriko he-

rrialde guztietako txapeldun guztiak hantxe bilduko dira: Nafarroatik Alustiza joanen den bezala, Razkin ere badao; Gipuzkoatik Larrañaga eta Zubiaurre joango dira; Arabatik Jauregi eta Zuazo; Iparraldetik Abadi eta Atxeritogarai; eta Bizkaiatik, azkenik, Ardanza eta Mendiguren, hau bi zakurrarekin. Azken honetxek irabazi izan du joan den lau urteetako txapela.

LEITZA ▶ AIZKORA

Jon Rekondo Euskal Herriko 3. mailako Aizkora Txapelketako kanporaketan

Navaridasen jokatu da; aurreneko hirurak sailkatuko dira finalerako

J. ASTIBIA

Jon Rekondo leitzar aizkolari gazteak bihar Euskal Herriko 3. mailako Aizkolaritza Txapelketako sailkapen saioa jokatu du, Navaridasen, 12:00etan hastekoa den jaialdian.

Txapelketa honetako bigarren eta azken kanporaketa izanen den honetan, bederatzizko aizkolaria ariko dira lanean, lana kana erdiko dituzte ebaki beharrak. Guztien artean, hiru lehendabizikoak sailkatuko dira finalerako, non eta noiz jokatu den oraindik zehazteko dagoen saioa hori. Herri Kirol Federazioetik jakitera



Rekondo udako saio batean. J. A.

eman dutenez. Jakina dena aurreko kanporaketako sailka-

tuak zein diren da: Lasa, Mujika eta Otaegi. Bihar beste hiruren izenak jakinen dira.

Adituek aitatzen dutenez, biharko aizkolarien artean Rekondo bera, Llanos, Ruiz de Aretxabalea, Teiletxea, Iriarte, Etxebeste Ila, Mandazen, Pika-bea eta Larrioren artean, finalerako txartela eskuratzeko aukera gehien eta faborito modura plazaratuko direnen artean dago Rekondo leitzar, «oso ongi ari baita lanean, serio eta gogoz». Honekin batera lehia bizian ariko dena Iriarte da, lehen ere Euskal Herriko txapela janztea zer den badakien aizkolaria.

ZINEMA ▶

‘Obaba’ Oscar sarietara joateko bidean jarri da

Espainiako Zinema Akademiaren hiru hautagaietako bat da Armendarizen filma

J. ASTIBIA

Donostiako Zinemaldiari hasiera eman zion *Obaba*, Montxo Armendarizek Bernardo Atxaga asteasuarraren *Obabakoak* eleberrian oinarrituta egin duen filma Oscar sarietara aurkezteko hautagai izan daiteke, laster.

Izan ere, sariketa horretan, ingelesez eginak ez diren filmeen sailerako proposamenak egiteko Espainiako Zinema Akademiak egin duen lehen aukeraketan, hiru hauta-

gaietatik bat *Obaba* izan da, Garciren *Ninette* eta Leon de Aranoaren *Princesas* filmee-kin batera, hauek Espainiako-ak.

Hiru horien artean, orain, beste aukeraketa saioa egin behar dute aitaturako akademiaren. Proposamen hori onartzeko garaian, ordea, azken hitza Hollywoodeko (AEB) Akademiak berak du; hain zuzen ere, proposatutako pelikula sail horretarako egokia den edo ez erabakitzeko ahalmena berea da.

TURISMOA ▶

Plazaolako bizikleta martxa bihar egingen dute

Uitziko tunelaren berreskurapenaren aldeko sinadura bilketari ekinen diote

J. ASTIBIA

Bihar egingen dute Plazaolan zeharreko mendi-bizikleta martxa, Andoaindik Lekunberri, aurtur hirugarrena.

1957an trenik gabe gelditu zen Tren Tikiak zelako haren ibilbide berreskuratutako zehar, paraje eder eta oraindik berde askoz gozatuz ibilaldia egiteko, luzera desberdineko aukerak prestatu dituzte Plazaola Patzuergokoek: Andoaindik 09:00etan aterako dira, 40 kilometroko bidera; Leizatik 11:00etan, 15 km-ko luzerakoa; eta 12:00etan, Lekunberri bertatik, ibilbide zirkularra egitera, batez ere umeentzat egokia dena.

Aurtengo edizioan, gainera, aldarrikapena ere badute: Uitziko tunela, 2,7 km luzeakoa, berreskuratzeko eskakizuna. Lekunberriko eta Leitzako zati berreskuratuak bereizten dituen tunel hau konponduz gero, «balio paisajistiko ikaragarriko ingurunean, bide berdeen erabiltzaileentzat 40 km baino gehiagoko ibilbidea osatuko litzateke», adierazi zuten, horren alde egiteko duten sinadura-bilketa aurkeztekoan. «Horretarako dauden zailtasunak azaltzeaz gain, sinadurekin gure helburua tunel honen inguruan dagoen eskaria Nafarroako Gobernari helaraztea da», zioten.

iragarki laburrak ▶

Korreos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93n.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi lanegun astean. Azken plazak.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrari laguntzaileak.

Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenerdik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.
Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenerdik ostiralera. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Laborategiak. Plazak libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan

943 65 01 93 telefono zenbakira **deituz gero.**
Administrari laguntzaileak. Plazak libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira **deituta.**
Autoen mekanika. Kobeen mekaniko gisa lan egin, tailerretan praktikak eginez. Marka guztiak, 4x4ak ere bai. Talde murriztak. Informazioa doan 943 22 46 85.

LANA Sukaldaria. Asteburuarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. 943 69 19 33.
Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. Deitu 675 70 11 78ra.
Emakumea. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta ebeko lanak egiteko Iruran. 685 76 80 91.
ESKAINITZA

Langilea. Neska bat eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Deitu 617 14 94 41ra.
SALGAI Furgoneta. Volkswagen Multivan TDI, 102 zaldikoa, SS-AW, egoera onean. Deitu 626 71 39 04ra (14:00etatik aurrera).
Egurra. Su egurra lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Deitu 615 75 57 62ra (arratsaldetan).



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. 16:00etan mus eta uztai txapelketak; 17:00etan tute eta bintxon txapelketak, La Jaran. Extremadurako Kultur Astean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Garbiñe Biurrun eta Maria Jesus Mendizabal bazkideek egindako eskulan eta pinturen erakusketa, La Jara zentroan. Kultur Astearen baitan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruizzen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

JAIK

Alegia. Kalebeherako jaiak.

12:30ean, krosa; 16:00etan, ume jolasak; 17:30ean, pala txapelketa; 21:00etan, zahagiardoa; ondoren, bertsolariak: Ibai Esoain, Xabier Sukia, Iker Zubeldia eta Iker Iriarte; gauean, txirrisklas festa Irma eta Amets trikitalariek alaiturik; atsedendian, txinga proba.

MUGIKORTASUN ASTEA

Asteasu. 11:00etan, bizikleta puntuan jarri eta jolasak, eskolan; gero, bizikleta bira.

Tolosa. 10:00etatik 13:00etara, irratsaioa, Trianguloan; 17:00etan, txirringululari proba herrian zehar; 18:00etan, *Azken tren* filma, Kultur Etxean.

Villabona. Bizikleta puntuan jarri eta jolasak, 11:00etatik 13:30era, Errebote plazan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Goiko irratia (107 FM)

13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zarautz iruditan

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Zarauzko hondartzan ateratako argazkiak argitaratu ditugu oraingoan: Getariako arratoia, eta marea gora



GETARIA ▶

Maider Muñagorri (Tolosa).

Zarauzko hondartzan hartutako argazkiak bidali dizkigu Maiderr Muñagorri tolosarrak. «Abuztuaren 18an Zarauzkit ateratako argazki bat da hau, Getariako arratoiari», azaldu digu. Laino artean ageri da sagutxo.

MAREA GORA ▶

Xabier Esnaola (Tolosa).

Kantabriako (Espainia), Aiako eta Zarauzko argazkiak bidali ditu Xabier Esnaola tolosarrak HITZaren argazki lehiaketara. Hauxe aukeratu dugu argitaratzeko: «Abuztuaren 19an Zarauzko hondartzan ateratako argazkia da, marea nahiko gora igota».



AGURRAK ▶



ZORIONAK

Nestor Barriola Goikoetxea (Tolosa). Gaur urtebete. Etxeko bihurrenari, familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Naroa Lasa Goikoetxea (Laskibar). Gaur 8 urte. Urte askoan etxekoan partetik. Eta ondo pasa Kostanen bordan.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!